

GANDEETAN IRTETZEN DA

BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA

DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Abendua-ren
13ⁿEuskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean.
Guei Bakocha, Chakur chiki bat.1903-ko Lotzila-ren
13ⁿ

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tivoli, letra B, 2.º derecha.

ITZ-JOSKERA

VII

Ameriketako Erri-Batuetan (Estados-Unidos) ba-omen dira eta ez noski guchi, Goiko Jaunak eta gurasoak emandako beren orz-aguiñ sendo ta gordiñak zañetatik atera, kendu, ta ordanekoak, *postizoak*, jartzen dituztenak.—¡Orissen bai erokeria! diozute zuek.—Bai, eguiz erokeria da ortzguille t' aguinguille billa ortarako ibiltzea; eta ez litzake erokeri chikiago izango, lengo ortzak beren lekuban daukazkigularik, jateko eragozpen baizik eguingo ez digun bigarren errenkada bat, naiz aurretik ta naiz atzetik, jartzeko asmoan, Burdeos, Paris edo Londresen, ortzguillerik ospatsuenari ere, diruba ematea. ¿Ez alderitzazute? Beintzat neri bai.

Ero aek eta oek eluteke kastigurik gabe guelditu bear; aurrenekoak lizondutako ogui-koskorrez, ta bigarrengoak olio-gabeko baratzuri salda utsez, amar-bat urtean edukitzea gueiegui ez deritzat, baña IBAIZABAL-en irakurleen batek gauz egokiagorik zoro oentzat asmatzen badu, be-realassen arekiñ naiz.

Eta.... ¿azkeneko zentzue oen antzekoak ez ote dira gure euskeran izape-izenai (á nombres propios de personas) a mugalea erasten diotenak?—Guchienez oek ainbat bai, eta.... nere ustez areagoak.

Bañan alakorik.... ¿non da? ta ¿nor da?—*Non dan* ez dakit, eta jakiteko nekerik artzera ez noa. *Nor dan* bai: nor dan badakit, eta esan nai ez det.... Egun batean (eguna ez zan, ez) gau batean joan nitzan eliz batera, an euskaldun sermoiguille baten orduko itzaldia entzuteko asmoan. Eliz artan sartzearekiñ bat entzun bear izan nituan onako itz oek: *Gure aita san Pranziskuba* erakusten digun penitentsizko bidea.... ¡Bai ni koru-pe artatichek laister atera! Oraindik belarrietan nerekiñ det predikari ark eman zidan.... azkurea; eta jurte luzeak joan diralarik!

¡Pranzisku-ba.... Pranzisku-ba bearaz! Aurreko itzak euskera biurrian ta nolabaiteko joskeran zebiltzan, bañan, bañan ¡Pran-zis-ku-BA! Ba ura zertarako ote zan? ¿Zertarako? ¿Edota esan bearko degu: *Pelloba*,

Pellobak, Pellobaren; Markosa, Markosak, Markosaren; Bizenteba, Bizentebak, Bizentebaren; Bartolomeba, Bartolomebak, Bartolomebaren?—Erantzun lizaiket norbaitek (venturaz berak) moldezko letretan letu zuala itz ura.—¡Aih, nik ere bai! nik ere irakurri det; eta gustatzen zaidan liburu batean. Bañan onekiñ ez det esan nai, t' ezin esan nezake, *ba* ori ere, eta *ba* ez diran beste gauza batzuek gustatzen zaizkidanik.

Arabi t' Indi-ko likurten erdia berderik Euskadi ontan gurekiñ dala deritzat. Badirudi kintalka erosi dituala gutatik bakoitzak leku aetako inzentsurik bikañenak: ez ordea al-dare nagusietarako, baizik aekiñ elkarri *zuk neri* ta *nik zuri, neri zuk* ta *zuri nik*, arunz-onuntz likurtontzia dantzatuaz, ke-usai goissoak sudurrétara emateko. Baña zzer aurretatzen degu orrekiñ? Alkar chora-tzea, engañatzea; eta euskera aldapaz beera zilipurdika amiltzea. Batek bestea alaitzea ona da, baña.... al-karri eguia gordetzea, eta gure itzkun-tza ondatzea ona eziñ izan.

Personen izenak a mugalearen bearrrik ez dute, eta orregatik beren aldaeretan itz mugueakkin anz guei-ago dute mugatuakkiñ baño. Emenche, bai, esan litekeala *ertzak ertzakkiñ* (los extremos se tocan): *Pello, Pello-k, Pello(r)en, Pello(r)i, Pello-gan, Pello-ren-gan, Pello-re-kiñ, Pello-z, Pello-gan-a Pello-ren-gana, Pello-gan-dik, Pello-ren-gan-dik*, esango degu; eta onelatsu beste izenakkiñ. Eguia da oskidez (en consonante) azkentzen diranak diferentzi pisska bat badutela: *Job, Job-en* (ez *Joberen* batzuek esan oi duten bezela), *Job-i* (ez *Joberi*), *Job-en-gan* (ez *Joberengan*), *Job(e)kin* (ez *Jobekin*), *Job-en-gan-dik* (ez *Joberengandik*), *Job-en-gana* (ez *Joberengana*).—*Abel, Agag, Arphaxad, Aman*, eta milla guei-ago orrenchen antzera dabilta, eta edozeñek erraz beren aldaerak eman litzaezake. Ez zaie a mugalerik erantsi bear.

Badira, bai, *Maria, Eulalia, Eusebia, Gervasia* (emakumeenetatik asko); *Amasa, Bautista* (guizonezkoenak guchi) aldaeretan itz mugatubentzura artzen dutenak, baña gogoan eduki bear da oen amaierako a ez dala a mugalea, baizik izenak berez berekiñ daramana.—Argatik euskaldun askok, a ori kentzetik kalterik ez

datorrenean, kentzen dute *Mari-cho, Eulali-cho* esanaz; eta, nere iritzian, orduban bestela baño euskal-usai gueigorekiñ guelditzen dira itz oek. Ontan nik bezela pentsatzen duten batzuek izango dirala usteko det.

Erri, erridi, ibai, mendi, arkaitz ospatsu t' ichaso berezien izenak, al-litzakean gaiean personenak bezela (a mugalerik gabe) ibiltzea obe litzake: *Kadiz, Kadiz-en, Kadiz-i; Ebro* (ez *Ebroa*), *Ebro(r)en* (ez *Ebroaren*); *Belkoaiñ* (mendi bat), *Belkoaiñ-en*, (ez *Belkoainaren*); *Izarraitz, Izarraitz-en* (ez *Izarraitzaren*); *Ozeano, Ozeano(r)en* (ez *Ozeanoaren*); *Hernani, Hernani(r)en* (ez *Hernaniaren*); *Beasain, Beasain-en; Durango, Durango(r)en* (ez *Durangoaren*); *Lekeitio, Lekeitio(r)en* (ez *Lekeitioaren*). Bere izen utsez ondo mugatua dagonak, itsuski ematen du a mugalea erantsita.—Bañan emen ere, aurretik personen izen batzuek esan degun bezela, badatozkigu a berenez duten *Grezia, Italia, España, Donostia, Aloña* (Oñatiko mendi bat), *Pirineoak, Oria* (ibai bat), eta oek itz mugatuakkiñ anz guei-ago dute beren aldaeretan. Ez aztu ordea oen a ez dala a mugalea, berena baizik. Oiechek ere eguiñalean obeto leudeke a kenduta: *Greziko, Italiako, Donostiko* esaten danean, soñu ohea jotzen dute euskaldun baten belarrietan *Grezialko, Italiako, Donostiako* entzuten danean baño.

Ortan euskerak zer nai-ago duan ezagutzeko, ar dezagun bi aldetara ibilli litekean itz bat; *Erregue=Erreguea*.—*Erregue* ez da bakar-izena (gaur *bakar-askoa* dio choko artatik arako ark), oraiñ *erregueak* ogueiñaka ezpadira, atzo beintzat baziran. Izen au ez da beraz bakarrarena, eta ez da person-izenak bezela aldatu bearrekoa. Gaztelarrak esango dizute *EL REY*, pranzosak *LE ROI* amaseigarren Luisi bizia kendu baño len beintzat, eta.... guerosseagoan ere orche nonbait. Euskaldunak baita esan guentzake *Erreguea, Erreguearen, Erregueari*, baña gueienak nai-sseago *Erregue, Erregueren, Erregueri* esan a kenduta. Baña.... zzer-gatik?—Onela esanarekiñ ederki bereizten, mugatzen ta señalatzen degulako aditzera eman nai guendukean ura. Argatik diogu: *Erreguek aguinñu du; Erregueren jaureguia;*

Erreguerekin omen dijoa zure anaia. Gaztolaniz esango litzake. El Rey ha mandado; el palacio DEL Rey; dicen que tu hermano va con EL Rey. Badirudi erderaz el esaten dan lekuetan gura, ak esan bear guendukeala, baño a orrek izketa eragozpentzeko ta luzatzeko baizik emen balio ez liguke: alperrik ez-eze, kaltetako guenduke. Nik ere, gueiegui luzatuaz, ez dizutet kalte gueigo eguiñ nai.

Ok.

BEGOÑAKO AMARI

Indietatik Ama lastana
Nire gomuta doa zugana
Eta jartzen da zure oiñpean
Jarri nintzalez agur eitean.
Ni naz arako obentzallea
¡Gomutau zaitoz Ama maitea!
«Gorde naguizu zeure menpean»
Esan eutsuna agur eitean.
Ni naz arako belaunbikorik
Eta beguiak malkoz betorik
Jarri nebana bular ganean
Zure irudia agur eitean.
Gomuta eguizu baita laguna
Nire lurreko kutun-kutuna
Orchen egona neugaz batean
¡Ama lastana! agur eitean.
Gorde gaguizuz gaur arte leguez
Naiz ichasoan ta naiz leorrez
Laster batzeko zeure aurrean
Egon guñan lez agur eitean.
Zaindari eder Jaungoikozkoa
Bizkaian Ama Begoñakoa
Eguizu. arren, gure artean
Esan neutsuna agur eitean.

ERREBIDO.

Manillan 1903-ko Urrien 11-n.

ECHALAR-KO USOTEGUIAK

Artezkari jauna: Beñ baño guei-gotan ikusi ditut Iruñeko eta Donostiko erderazko albistarietan Echalar-ko usateguiko berriak, eta banengoen noiz bidaliko zioten zer edo zer IBAIZABAL-eri Donosti edo Irun edo bertze Euskalerriko aldetik usategui ortarat joaten diran euskaldunak; baño alper alperrik... iñor ez da orretaratu. Alan bada, naiz ez izan batere trebez euskeran, albistari orreri zerbait bidali naiean artzen

dut luma usategui orien aurtengo gora-berak aipatzeko.

Urriaren lenetik asi ta Azaroaren erditsuraño ibilli dira eizean, gueien-gueiengan aro charrakin, eta ala ere eiztatu dituzte 2.500 uso ta gueiago jeiza ederra! esango du norbaitek, eta nor-edo-nork jez dituk atik Sebilla aldean mingaiñ luze ta abo bero guziek!

Onelakoeri aundia bazaie erran dudan eizia, erranen diet izandu dituztela urteak 4.000-tik gora igan direnak, eta siñetsi dezaten IBAIZABAL-tar guziek erranen diet guti gora-bera nolatsu eguiten duten eizia.

Echalar-tik ipar alderat eta Fran-ziko muga-mugan badago menditto bat, ez aundi-aundia ez ta ere chikia (erritik ordutso bat gaiñ-gaiñerat), eskuñetik dauka *Peña-Plata* deituko mendi aipamen aundikoa, eta eskerretik Labiaga ta Larungo mendiak, eta aurrean berriz erreka bat, eta ondotik Euskalerrriaren zati eder bat (Lapurdi) bere itzaso arrapa zuridunarekin, itz batean, da mendi bat ehit pozgarri ta zoragarria, beguiak ikusten aspertzen ez direnak eta biotzak gozamen eztsitu batez betetzen dituenak.

Mendi unen gañean aurkitzen da zelai pollit bat arbol ederrez inguratua; zelai unen atzeko aldean badire bortz sare-toki, bakoeha esker-eskuñetik arbolez inguratua. Emen paratzen diren sareak izan bear dituzte 20 bat metro aunditasunean eta 15 bat zabaltasunean guchi gora-bera. Eizia eguiteko sareak lotzen dituzte lur-lurrean aal beziñ estu alde bate-tik, eta bestetik alchatzen dituzte chirrika batzuekin, oso ehutik guelditu gabe baizikan piska bat zearkara edo iraulissia guelditu arte, guero sare-zai daudezinak nai dituztenean eta bat-batean alde guzitik lurreratzeko guisan, lokarri baten lajatzetsarekin.

Sare-tokitik aurreko aldera eta esker-eskuin badaude bi arbol erreldo ta oken artean lau trepa, bi alde bakochean; trepa ok dire beste ainbeste guizonen chaolak, bi arbol gañetan eta beste biak arriz ta zurez eguiñak dorre batzuen eran; azken trepatik (ordu erditsuren bidean) badire iruna mutiko alde bakochean. Una bada nola eizi unetan diren amabost eiztari, bost sare-zai, lau trepatan, eta sei mutiko koskor larrean.

Orain, bada, kontu eguin dezagun dela Urriko egun eder bat, zeru-zola urdin-urdina ta ipar aize gozo-gozo-arekin; argui astearrekin batean an daude gure eiztariak zuzen bakoeha bere toki jakiñean, begui ideki-itsi ba-

tean edatzen dituzte sareak eta orduko asi da urrutienik dagoan mutikoa tutua jotzen ¡tatariiii!... ta unekin bertze lagunak badakite eldu dela uso multso eder bat edo chikia, unelako edo alako aldetik, apalian edo alturan..... zai jartzen dire denak, beguiztatzen dituzte eta issill-issillik daude ikusi arte zer bide artzen dute; ez doazi sare bidetik, baizik eskerretik, an dago ere mutill bat eta usuak sare biderat itzuli naiean asten da ojuka ¡urre! ¡urre!..... denbora berean ebiltzen duela bere indar guzietekin eskuetan daukan chatarra (oial zuri bat makill batera ichekia), izitzen ditu gure usoak eta itzuli-arazten ere bai, baño ez sare biderat, baizikan eskuñeko aldera, eta emen ere topatzen dituzte lenagoko trabak, bada bertan dagoen mutikoa asten da lengoa bezala deadarka eta bere chatarra dardaritut... berriz izitzen dire ta itzultzen erdiko alderat, sare biderat, uzten dituzte eben guisan lenbiziko trepa atzean guelditu arte, asten da trepari au ojuka ¡uf! ¡uf!... asotsa eguiñez ta botatzen die bere indar guzietekin paleta kistatu bat jarraia!... erranez eta chimista lez jausten dire lurreraño gure uso guziek (uste dutelarik atzetik eldu zaien ura kabriren bat delakoan), izidura unekin doazi aurrerat usoak eta una non berriz botatzen dien bigarren trepariak bertze paleta bat lengoa bezelatsukoa ta berriz lurreratzen dire, eta ia nola dauden saretan, ok jotzerakoan, sare-zai daudenak ordunche lussatzen dituzte eta erortzen dire azpian artuz sartu ziran uso guziek, eta orra nun ditugun salto ta salto iguesari eman naiez, baño sare-tik doazi eiztarien magalerat eta emendik bizirik ortako duten chaolarat... una zein ederki eta nolako abilidadiakin egazti ernienarik bat erortzen den bizirik guizonen eskuetan.

Denbora ederrak, ipar aizeak eta zeru zol garbiak laguntzen balioteke, ez iru milla, baizikan oguei milla ta gueiago eiztatuko lituzteke, bañan goiko Jaunak eman bear ok....

Una emen eizi unen berri batzuek, baña gauz bat da jakitea nolatsu eguiten den eta bertzea beguiz-begui ikustea... neretzat beintzat ez da ez zezenketarik, ez pillota jokurik, ez eta beste jostatzerik, au bezin eder eta atseguingarria zaidanik.

Barka beza, artezkari jauna, baldin eta sobera luzatu banaiz, eta bear den bezalako euskara garbian izkiratzen ez dakielako.

EIZTARI BAT.

Poztuten ditu titiko seiñak bere arguiak, Poztzen umeak, gazte, garako, ta zartuak, Beragaz naste beroa bere dakarrelako, Bizientzat biak nai eta nai ezkoak.

Poztuten ditu landarak, erneagaz batera Zabaldurorai eragun euren kolkochoak, Pozgarrituten ekin gueiago goisetan bere Dirudiela perlakaz jantzi-ta kanpoak.

Poztuten ditu bizitzearen korrontak sartu, Einda arbolai ipini arte bizkortuak, Baita abere, piztia eta bizidun danak. Zeintzuk illunez litzatekezan ondatuak.

Berak ipinten ditu kantari choriak pozik, Berak saltoka abere gachik bagakoak, Berak zuzendu bidez galduta aurkitzen zana, Ta batez bere beguiz ikusmen guichikoak.

Ikusmen guichi guk bere gueunkan Arana, eta Zuk dirudizu legue zarretan gure eguzki, Ez dot ikusten kondairan zure izpi zorrotzai Aurrez aur bestek eurai deutesnik gogor eutsi.

Bizkaia inok lotu baguea zelan izan zan, Zuk arguitara emon zenduan liburuan, Irakurrita daukaguzanak gordeko doguz Ill arteraño biotz barruan ta goguan.

A da izar bat Bizkaiarentzat arguitsuena, Zuk issetuta aurrerantza gu arguitzeko, Zuk añan ez dau bestek zabaldur euskal federik, ¿Izango ete da ondorik norbait bardintzeko?

Apostolu bat ziñan benetan, euskaldun ona, Galdur dozuna bere on arren osasuna, Euskalerrriagaitik zuk galdur dozu bizia, Baita ez guichi inola bere ondasuna.

Zeure Aberri maiteagaitik dana emoten Sabiñ, zu zara bardin bagako bat bakarra, Izarrak asko badira bere goi urdinean, Euren nagusi, ¿nor da Arana, bat ezpada?

Bat edo batek izan bear dau an bere nausi, Zuri bajatzun gure artean ausse guertau, ¿Zelan ez doguz zure doe ta on aiñ andiak, Euskaldun utsok eurak eguingo gaur alabau?

Odolez izan arren euskaldun, maketo antza Berbaz zeunkala zenduanean ezagutu, Mingaiña bere etziñan jarri oso ta garbi Euskaldunduta, eguin artean gure maissu.

¿Zeiñ guichik daben orrenbestean burua ausi! ¿Zuk leguez gabak euskaldunduten zeinek galdur? Bagareala zerbait euskaldun uste badogu, Zu zara Zentoi (1) eta nanoak bakarrik gu.

¡O ezbearra eneban uste eriotzeak, Tantai gazte bat alan botako zinduzala, Negarrez gagoz gau eta egun zure anaiak, Damuz gaur dago intziriaka Ama Euskera.

Ill jakolako semerik onen indartsuena, Ausi besoan berak ekarren makulua, Jausi ez dedin Ama ainbeste guizaliduna, ¿Nor izango da Sabiñ añako morroskua?

Zentoi bat utsik nik ezautu dot euskalduna ta ¿Zeiñbat ete da euskaldun danen kopurua? Gorputzez zentoi bazan Alzoko mutill andia, ¿Biotzez etzan Aranatar bat burutsua?

Bera zan bada euskaldunetan aguiriena, Bera eguin zan bazter danetan ezautua, Euskal-leguetan bera izan zan Eguzki argui, Arguituteko argui bagako guisajoa.

Bera ill arren ez dira illgo bere lumeak Eskribiduta ichi dituzan gauz andiak, Ze bide eguin aurrerantzean bearko daben Urratuteko maketoaren lokarriak.

Euskal erriko eguzkia zu Sabiñ zeu zara, Iratzarteko erdaldun amesdun guztia, Arguitutean oso daukagun itsumendia, Salbauko dogu Jaungoikoagaz Aberria.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Oehandion 1903-ko Abenduan.

(1) Zentoi: ot jügautu.

¡GURE EGUZKIA AMATAU DA!

Eguzkiari aldi danetan bertsolariak Goratu deutsez daukazan doe ereguiak, Illuntasunai guerra eguiten dakusolako, Iratzarturik lo eukezanai len beguiak.

ALBISTAK

Donostiatik

IBAIZABAL-en artezkari jauna: Joan dan asteko larunbatean billatu dute Ondarrabiako Jaizkibel mendiaren ichasaldeko arkaitz edo arroketan arkitzen dan leiza zulo batean ogueitazazpi urteko guizaseme bat larrugorrian Orrill edo Maiatzetik gaurdaño lapak eta lanpernak eta.... an inguruan larrean zebiltzan ardi ta zikiroak janaz.

Aurrera ere ala jarraituko zuben baldin artzaiak beren ardien billa asita billatu ezpazuten biztanle orren jaureguia.

Eztakigu Juan Batiatzalle Santuaren penitentziko bizimodua eramaten ikasi nai zuben edo ez, bañan Done orren bizitzan ezta irakurten ardirik ostutzen zubenik, bada ogueitaseigarrena larrutua arkitu dute, eta nola gordiñik jaten baizituben prest zeukan sabela piskabat berdintzeko.

Artzaien eta karabiñeruen artean atera zuten bere leiza zulotik eta Ondarrabiako kartzelara eraman eta andikan onera ekarri ta emen ere ichira ta gaurko egunariak dio Eritegui edo Hospital-era eraman dute la burutik ondo dagon edo ez azterrenak ateratzeko.

Berak aitortu omen du zenbat ardi jan dituben, eta noiztik zegoen or, ta chikitan artzai ibilli zala, eta sasikumia dala.

Bizarra ta illea ugari asi omen zaio, ta guria omen dago; jakiña, okelaz ondo bete ezkerro.

Burutik ondo baldin badago erakutsiko diote iñori kalterik eguin gabe penitentzia eguiten; baita nai ez badu ere.

Agur, artezkari jauna, ta datorren astera arte.

IZARRAITZEK

Aguindu zuzen bat

Mallorka-ko Obispo jaunak agindu dau gaurtik aurrera ipiñi daitezala *Boletin*-ean katalanez Aita Santuak kristiñaubai zuzendu oi deutsezan eskutitzak, *Enciclica*-k deituak, baita bereak (*Pastoral*-ak esaten jake Obispuenai) bere. Katalana da bere eskuera edo *Diocesis*-ko jenteen berbetea.

Aguindu au asi zau beteten edo eguiten Zemendiko 22-an urten eban *Boletin*-ean, nun aguri dan X-garren Pio Aita Santuaren eskutitz *enciclica* latinez, gaztelarrez, eta katalanez.

¿Nun izango dogu azkena?

Kontzeziño goizean urten eban Bilboko kai edo portutik prantzes ontzi batek, eta ichaso guztiz gogorraz aurkiturik, beragaz guda estu ta larria erabillita sartu zan barrirõ kai barruan.

Ontzi onetako bost guizon sartu zirean batelehuan Portugalete-ra joateko zeren edo aren billa, ta zehakeen itzuli guizajoai batela ibaiaren aon zear joazala ta bertan bostetatik lauk bizia galdu?

¿Nok esan arei, ichasoari igues eguinda, kai barruan, leku seguruan sartu zireanean, anche ito bear ebela?

Jaunak zeruan euki daizala guizajoak.

Boskarrena, bizirik urten ebana, batel itzuliari gogor oratuta egon zan ordu-erdi inguru, sorosi edo *socorridu* eben arte.

Erriko gloria (1) bi

Bilboko gure ezagun batek azaldu euskun urren doiana, berak *Palencia*-tik *Leon*-era burdin-bidean joiala ikusirikoa:

«Ulizein-go (1) gueltoki edo estaziñora eldu guineanean, ibiltoki guztia lagunez beterik egoan, danak jai-eguneko jantziakaz, ta erria chikia denez, uste izan neban erri guztia zala bertan.

Itandu neutsan treneko chantel-zulatzailleari ia zer zan ainbeste jente an egoteko, ta erantzun eustan berak ezekiala ezer. Orduan leio aurrean egozan emakume batzui esan neutsen:

—¿Gaur erriko jai al da?

—Ez jauna.

—¿Zegaitik da ba onenbeste jente emen egotea?

—Amazazpi urtean kanpotik izan direan erriko seme bien beguira gazozalako.

—¡Ah! Eta ¿Ameriketatik edo nondik datoz?

(1) Gure ezagun bilbotarrak esan euskun erriaren izena, bañia ezta zotan esan, da orregaitik *ulizein* ipinten dogu, guizon baten izenaren orde z *urlia* jarri oi dogun leguez.

—Presiliotik, jauna.

Konkortuta guelditu nintzan au entzunda, ta neuregandu nintzanean zerbait, itandu neutsen:

—Eta ¿zegaitik bialdu ebezan ba presiliora ainbeste urterako?

—Bada, lapurreta ta eriotza bate-ra eguin ebezalako.

—Eskerrik asko ta agur, esanda sartu nintzan neure tokian bide batez neure arten niñoala: *Personaje* eder bi badatoz ba demoniñetan erri oso batek icharotera urteteko».

IZKIRIMIRIAK

Beñi batean echeko illoba Chomin gaiso egon ta sendatu berria zan.

Nola egon baizan gaiso denbora luze samarrean bere guelako gaubeko maichoa (1) zegoan botikaz betea.

Sendakiñak esan zion egun arretako ikustamena eguin zionean, sendatu zala eta botika bearrik etzeukala.

Au aditu zutenean Chominen anaiak asi ziran burrukan alkarrekin, batek eta besteak edan bear ziztuzela botika guzti aiek.

Ontan zebiltzala sartu zan aita eta kendurik eskuetatik botikak esan zioten:

—Beguira, omen guelditu diran edari garezti oiek alperrik galdu gabe eman bear zaizkio amonari zergatik premik gueiena dadukan.

Penaturik guelditu ziran mutillak aitaren agindu au aditu zutenean, eta amonari eman zitzaizkion, esan bezela, Chomiñi sobratutako gauza oiek.

Edan orduko eman zion bere bizi-ko marruari eta tripetako miñez ezin egonik asi zan lurrean arrastaka. Au

(1) *Mesita de noche.*

OGUEITA BOSTGARREN IRUDIA

XXV

LENGUAK ETA INASSI

- INASSI. Emen naiz ni ere.
 ON TOMAS. Ongui etorri Inassi.
 AND. BISS. Aussen da kuadrilla bildu guerana.
 KANIKAS. E...che u...utze...ra...ko.
 SSABIROLA. Arreba, orra; au eman dirate, esanaz, emen denen aurrian irikitzeke.
 INASSI. Iriki bada, nai badezu.
 DENAK. Bai ¡Iriki, iriki!
 KANIKAS. Bo...os du...u...ro...ko en bat.
 DENAK. ¡Ja, ja, ja!
 SSABIROLA. (*Karta irikila*). Irakurri zak Tomas, ea zer dion.
 ON TOMAS. (*Irakurriaz*). ¡Oi!
 DENAK. ¿Zer da? ¿Zer da?
 KANIKAS. ¡Duro e...erdi en...en bat!
 ON TOMAS. Josse ekatzak bostekua.
 KANIKAS. ¡To...o...o...o!
 ON TOMAS. Iri ez; oni. Onela jartzen dik iskribuak: «*Nere emaste eta konatari bizia salbatu diozulako ordaintzat izango dez...*»
 DENAK. ¿Zer? ¿Zer?
 ON TOMAS. Arrantzako bapore berri bat.
 SSABIROLA. ¡Oi! ¿Eguia alda ori?
 ON TOMAS. Eguia, eguia.
 KANIKAS. ¡¡Bien Jo...os...sse!!

orrela zebillen bitartean ekarri zuten sendakina eta onek eguin zizkion moduak gauza zikin aiek bota arazitze-ko eta eskerrak azkar ibilli zirala bestela an illko zitzaieten.

Illobak pozturik edan etzutelako eta amona alaiturik ontatik atera zailako, guelditu ziran esanaz eche arretan etzala ardua ta sagardua beste edaririk sartuko.

Eta esan bezela eguin zuten. Napik ere etzan sartu arrezkero eche arretan.

IZAZKUN.

Bizartegui batean galdetzen dio bizar-kentzalleari batek:

—Aizu aiskidea inoiz illea aunditzen da gueiena, udan ala neguan?

—Dudarik ez dago, aunditzen da gueiena udan.

—Zergatik?

—Zergatik neguan baño egunak luzeago diran.

Brauliok, chit penatua, dio bere semeari:

—Bai, seme, bai. Ezkontza karga aundia da. Ez banuen ezagutu zure ama, biziko guñan orain biok bakarririk pake santu ederrean.

Bi sendakin miñez dagoan baten aurrean ari dira disputan.

—Nik uste det biotzetik duala, dio batek.

—Bada nik uste det esteko miña duala, dio besteak.

—Ori jakingo da ill ondorean, barrera ikusteko idikitzen degun denboran, dio lenengoak.

R. I.

Bein baten Aulestia-ko guizon batek itandu utsan errotako morroi bati:

—Zer eguiten dau gariak?

Eta morroiak erantzun utsan:

—Uruna, guizona.

Onek orduan:

—Baiña *altu-bajuen* nai dot jakin.

—Zaldi ganean doianean altuago asto ganean doianean baino, diñotso morroiak.

F. UGARTECHEAK.

—I, Ameriketatik osabak ekarritako makilla ederra inun dok?

—Ara emen.

—Zori al dok? Eta zikirtentzat eukan bola polita?....

—Kendu! Andieguia zuan niretzat makillia.

—Zezin izan euan laburtu azpiko aldetik?

—A kirtena! Ganetik ala azpitik ete naieukan luzeegui?

Lengo egun baten, emen Bilbon otsein dagoan neskatilla batek, inoren eskutik eguinda, bialdu eban bere echera eskutitz bat. Esan eutseen leguez, amabost zentimoko sellu bategaz bialdu bear ebala, joan zan estankura, erosi sellu ori, ta sartu eban eskutitz barruan; sarratu eban onen estalkia, ta bota eban buzoian.

Orressek atara dau eskutitz edo kartak botateko moda barria.

IGARKIZUNAK

I

¡Bat palta, bat!

.r. .n

.m — .l.b.k

.g.zt. .b.t

.d.k.r .m.k

.l.b.k.

.k.l.b.z.k.

Puntu bakoitza estali bear da aostar (vocal) banarekin.

OIRENPAK.

II

—Aneska, kontus ibilli adi, Bermioko jaureguian gonadunentzat bere leku naikoa eiagon-da.

—Zegaitik diñotan ori?

—Urrindik ikusi aut berbetan bakarririk eta beti-bere atzamarra bekokira ta aora eroaten, da eguin ionat neure artean: zoratatu eguin ete iaku Kontze-zabal?

—¡Ba.....! jezein pentzau!.... zoratatu bearrez naiabin nire arrautza tratuko kontu bat ezin atara-ta.

—Bien artean atarako ionagu.

—Aituiñ ba..... erosi gaiendunazan Durango-ko alderrietan, senarra ta semeak eta neu batetik-bestera ibillita, 1.560 arrautza, iru erlean amabikoa (dozenea); joan nitzonan Bilbora eurakaz, da ango gozoguñ batek erosi ieustanazan atzo 7'85 pesetan eunekoa (1).

—Nik neuk, Kontze, errealeka ta amabika ederto kontuak ataraten ionaz, baia peseta-zentimoka ta eundaka enon bape gauza.

—Orisse don ba nirea! Entzuiñ ba, eroan nebazan arrautzetatik 54 urten eben ausita, niretzako galduak.

—Ta orain zzer jakin gura don ba?

—Artzeko iaukenaz diruok, eta jakin gura ionat zeinbat irabazi dodan oraingo tratuan.

—Zelan esan don? Ia barrero esaidan kontu ori.

—1.560 arrautza erosi, iru erlean amabikoa bana; euneka saldu, 7 peseta ta 85 zentimoan euneko bakocha; ta saldueran 54 arrautza ausita aurkitu. Zeinbat irabazi etedodan jakin gura.

—Aneska, kontu latzak dozan orrek niretzat. Gura badon, neuk esango iuchenat Boldro nire ezagunari, IBAIZABAL-en ipiñi daian. ZGura don?

(1) *Desenea ta eienton aurrez entzuten dira Durango aldean; amabikoa ta eunekoa esan ezkerre, danak aitu-tan dabe, ta euskera da.*

—Bai, ba.

—Tira ba, ezadi estutu, batzuen-batzuk atarako ioen kontu ori ta.

Kontze-zabal koitadiari atara deustat kontua, baiña berari esan baño len besteren baten erechia jakin gura neuke, ziur egoteko ondo edo charto atara dodan.

BELDROK.

Lengo astekoaren erabaguia: *Gorri*-ren domu edo *prezio*-aren laurena baguenki bereala legoke atarata kontua. Erraz jakin daiteke. 980 pesetan dagoz sartuta idi bien kostuak, au da, *Churi*-gaitik emon zirean *Gorri*-ren $\frac{3}{4}$ k, eta azkenengo onen $\frac{1}{4}$ k; beraz 980-au dagoz *Gorri*-ren domuaren $\frac{7}{4}$ k. Bada 980 eguin ezkerre 7 zati bardin, eukiko dogu jakin gura dogun lauren ori, ta 140 da. Kopuru edo *numero* au 3 bider andiago eguinda daukagu *Churi*-ren domua, $3 \times 140 = 420$ peseta; 4 bidertu ezkerre daukagu *Gorri*-rena, $4 \times 140 = 560$ peseta.

Erabagui au bialdu dabe Bergara-ko Gregorio Sasietak, Usansoloko Jose Mari Labordak, Eskoriatzako Juan Gorosarrik, Belauzar batek, Logroñoko Dionisio Azkuek, Bilboko *Apetito*-k, Madrillgo Urbanok, eta Azpeitiko L. Oyak.

LA EDITORIAL VIZCANA delibon maldagultsan
Gran Vía 26, cta Ledesma 15.

— 42 —

ON TOMAS. Egon, egon. Emen bian jartzen du gueio. Ara... *baporiari jarriko zaio izena euskeraz.*

DENAK. ¡Ederki! ¡Ederki! ¡Orla, orla!

INASSI. ¡Anai, au suertia legorrez!

ON TOMAS. Adi zazute; oraindik gueio jartzen du bian: *«Zuri laguntzera etorri danari, graziz ematen zaizka egunian oguei baso sagardo lau urte barruan.»*

KANIKAS. ¡A...a...a u...faaa!

AND. BISS. ¿Ez aldiruri onek Jaungoikuaren laguntzaren bat dala?

LUIS. Bai ala diruri.

SSABIROIA. Tomas: ik aitzekia jartzen ukan, emen ez ukala guelditu nai baporerik etzalako.

ON TOMAS. ¡Bai; ala dek!

SSABIROIA. ¿Eguiak esatia libre alda?

DENAK. ¡Bai! ¡Bai!

SSABIROIA. Bada gaurdandik eguiten at makinista nere bapore berrian.

ON TOMAS. Eskarrikasko.

SSABIROIA. I, Kanikas, guidari lagun.

KANIKAS. ¿Ta no...no...iz er...an ogue...ei ba...a...suak?

SSABIROIA. Legorrian ezin bada itsasora eramango dizkiagu.

KANIKAS. ¡Ba...a...po zi...zi...ok!

SSABIROIA. I Luis, nai badek makina lagun...

LUIS. ¡Pozik eta pozik!

SSABIROIA. Ni patroí; eta zu Inassi, guk arrapatzen deguna saltzeko.

— 43 —

INASSI. ¡Zuk nai dezun bezela!

SSABIROIA. Eta boorri andre Bissentata...

AND. BISS. Ni ez naiz *conforme*.

DENAK. ¿Zer bada?

AND. BISS. Inassi es du gueiago saltzen aditu bearrik zergatik echekoandre eguingo dan. Lan ortarako nik billatuko det jendia. Gañera nik... naidet izan...

DENAK. ¿Zer?

AND. BISS. ¡Amaidiña!

SSABIROIA. ¿Zeneña?

AND. BISS. Abena; (*Tomas eta Inassiri eldula*). Tomas ¿Makinista batentzako modukua ez alda au? ¿Zubek zer derizkiozute?

DENAK. Berak nai badute...

ON TOMAS. Nik bai, zeta zuk?

INASSI. Nik ere bai.

AND. BISS. Orra denak ondo konpondu.

DENAK. Bai, ongui dago.

SSABIROIA. Bigardandik denak elkarren laguntzan lanera.

KANIKAS. Lenbizi e...era...ran da!

SSABIROIA. Eta zer izen jarri bear zaio ontzi berriari?

DENAK. «SSABIROIA».

SSABIROIA. (*Jendiari*). Ontzi berri onek, arrapatzen duben arraiatik, emango diogu, beok guztuari, piska bana probatzeko; bañan ortarako nai guenue lenbizi beok guri chalo-bana ematia. (*Jaisten da burtiña*).

BUKAERA